



ÇA COLLE AU BASQUE DEIALDIA, EUSKAL LITERATURA FRANKOFONIAN ZABALTZEKO

2025ean hasita, Etxepare Euskal Institutuak Frankofoniaren unibertsoa izango du xede; hau da, Frankofoniaren espazio kulturala ardatz hartuko du euskarari eta euskal kulturari buruzko ezagutza eta zabalkundea handitzeko eta lankidetzak berriak sustatzeko.

Xede nagusi horrekin eta *Basquebooks* estrategiarekin bat, datozen urteetako helburuetako bat izango du euskal literatura frantsesera itzuli eta frankofonian argitaratzea.

Hori dela eta, euskal literatura frantsesera itzuli eta argitaratzeko baliabideak jarriko ditu Etxepare Euskal Institutuak, ondorengo ataletan zehaztutakoaren arabera:

1. Xedea

Deialdi honen xedea da euskaraz idatzitako literatura frantsesera itzuli eta frankofoniaren eremuan argitaratzeko proposamenak aurkeztea, ondorengo berariazko baldintzen arabera.

Frantsesera itzuli eta argitaratzeko proposatutako lana jatorriz euskaraz idatzitakoa izango da eta edozein generotakoa izan liteke (narratiba, poesia, saiakera, komikia eta HGL).

Deialdi honen ondorioetarako, Euskal Hirigune Elkargoa ez da frankofoniatzat hartuko.

Xede horretara iristeko, 3 helburu zehatzago aurreikusten dira:

1. Frankofoniako argitaletxeak arakatzea.
2. Behar izanez gero, itzuli nahi den liburuaren laginak edo dosierrak itzultzea.
3. Frankofoniako argitaletxearekin liburuak itzultzeko eta argitaratzeko konpromisoa sinatzea.

2. Proposamenak aurkeztea

Argitaletxe, idazle, itzultzaile edo agente literarioek aurkeztu ahal izango dituzte proposamenak.

Idazleen edo itzultzaileen kasuan, gutxienez literatura lan bat paperean argitaratuta izatea.

Eskatzaile bakoitzak nahi adina proposamen aurkeztu ahal izango ditu.

Pertsona berak proposamen bat baino gehiago aurkeztuz gero, behin bakarrik jaso ahal izango du Frankofoniako argitaletxeak arakatzeko laguntza.

3. Baliabide ekonomikoak

Etxepare Euskal Institutuak gehienez ere 27.000 euro bideratuko ditu deialdi honetara.

3 proposamen babestuko dira, eta 9.000 euro bideratuko dira proposamen horietako bakoitzera.

4. Onartuko diren gastuak, zenbatekoak eta mugak

Proposamen bakoitzak gehienez ere jasoko dituen 9.000 euro horiek honela bideratuko dira:

- Gehienez ere 3.000 euro, frankofoniako argitaletxeak arakatzera eta, behar izanez gero, sustatu nahi den liburuaren laginak edo dosierrak itzultzerako. Zenbateko hori ordainsari, bidaia, itzulpen eta antzeko gastuetara bideratuko da.
- Gehienez ere 6.000 euro, Frankofoniako argitaletxearekin liburua itzultzeko eta argitaratzeko konpromisoa sinatu eta liburua argitaratzera. Zenbateko hori itzulpen nahiz edizio eta promozio gastuetara bideratuko da.

5. Proposamenak onartzeko prozedura eta epeak

Epe barruan aurkeztu eta baldintza guztiak betetzen dituzten proposamenak Balorazio Batzorde batek aztertuko ditu, eskaerak aurkezteko epea amaitu eta hilabeteko epean.

Batzorde hori Etxepare Euskal Institutuko zuzendariak izendatuko du eta literaturaren arloko adituek, Frankofoniaren eremuko erakunde ordezkariak eta Etxepare Euskal Institutuko kideek osatuko dute.

Aurkeztutako proposamenen artean 3 hautatuko ditu batzordeak, honako irizpideen arabera:

- Aurkeztutako proposamenaren literatur interesa eta kalitatea
- Egindako plangintzaren bideragarritasuna
- Proposamena aurkezten duenaren ibilbidea literaturaren edo/eta edizioaren esparruan

Balorazio batzordeak aurreikusitakoa baino proposamen gutxiago onartzea erabaki ahal izango du.

Hautatutako proposamenak Etxepare Euskal Institutuko zuzendariari helaraziko dizkio, Etxepare Euskal Institutuak dagokion babes kontratua sina dezan horietako bakoitzarekin, deialdi honetan jasotako konpromisoak berresteko.

Etxepare Euskal Institutuak kontratu zirriborroa bidaliko die, posta elektroniko bidez eta gehienez ere bi hilabeteko epean.

Mezu elektroniko hori jaso eta 10 egun balioduneko epea izango du proposamena egin duenak kontratu zirriborroa onartu duela baieztatzeko Institutuaren mezuari erantzunez.



6. Proposamenen bateragarritasuna

Deialdi honetara aurkeztutako proposamenak beste deialdi batzuetara ere aurkeztu ahal izango dira, baina ez da gainfinantziatorik onartuko. Gainfinantzaketarik badago, proposamenean jasotako zenbatekoa murriztu egingo da, dagokion gehieneko mugaraino.

Honi dagokionez, salbuespena izango da Etxepare Euskal Institutuak urtero kaleratzen duen literatura lanak euskara ez den beste hizkuntzetara itzultzeko deialdia.

7. Proposamenak egin ahal izateko bete beharreko baldintzak

- a) Inolako zorrik ez izatea administrazio publikoekin.
- b) Proposamen berari lotutako laguntzen berri ematea.
- c) Ez izatea administrazio publikoekin jarduteko debekurik.

Hiru baldintza horiek betetzen direla erantzukizunpeko adierazpen bidez jasoko da proposamenean.

8. Proposamenak aurkezteko epea eta modua

- a) Proposamenak aurkezteko epea 2025eko maiatzaren 6an amaituko da.
- b) Proposamena posta elektronikoz bidali beharko da etxepare@etxepare.eus helbidera.
- c) Honakoak aurkeztu beharko dira:
 - 1. Proposamen-orria (erantzukizunpeko adierazpena barne dela) behar bezala bete eta elektronikoki sinatuta.
 - 2. Proposamen txostena. Honakoak jasoko dituen, gutxienez:
 - Aurkeztutako proposamena landuko duenaren datuak eta CVA. Bereziki zehaztuko da nazioarteko eskubideak kudeatzen izandako esperientzia.
 - Begiz jotako argitaletxeak edo lehendik Frankofoniarekin izandako harremanak. Nazioarteko argitaletxeekin koedizioan izandako esperientzia.
 - Proposatutako literatura lana(k) eta horiek nazioartean argitaratzeko interesa eta arrazoiak.
- c) Proposamenak aurkezteak esan nahiko du berariaz eta formalki onartzen direla deialdi honen oinarrietan zehaztutako baldintzak.
- d) Etxepare Euskal Institutuak posta elektronikoz iritsiko den mezuari erantzungo dio, eta bertan adieraziko dio erregistro zenbakia. Mezu hori jaso arte ezingo da proposamena aurkeztutzat jo.



9. Proposamenean egindako akatsak zuzentzea

Etxepare Euskal Institutuak ikusten badu proposamena onartzeko eskatzen den dokumentazioan zerbait falta dela edo forma-akatsak daudela, edo balorazioa egiteko aurkeztu diren dokumentuetan akatsak daudela, hamar egun balioduneko epea emango da akatsa zuzentzeko edo aurkeztu beharreko agiriak aurkezteko. Epe hori igaro eta zuzenketarik egin ez bada, proposamenean atzera egin duela ulertuko da.

10. Kontratu sinatzailearen betebeharrak

- a) Jasotako zenbatekoa adierazitako helburu zehatzerako erabiltzea.
- b) Proposatutako plana gauzatzea eta gastua justifikatzea.
- c) Proposatutako lana 2026ko abendurako argitaratzea.
- d) Proposatutako proiektuan izandako edozein aldaketaren berri ematea EEIri, EEIk onarpena berrets dezan edo uka dezan.
- e) Etxepare Euskal Institutuari eskatutako informazioa helaraztea.
- f) Proposatutako proiektuarekin lotutako materiala eta irudiak erabiltzeko baimena ematea EEIri.
- g) Kontratua sinatzen denetik aurrera EEIren babesaren berri logotipo bidez ematea, katalogo, programa, iragarki-kartel, argazki eta argitaratzen diren gainerako material grafiko zein soinudunetan, horrelakorik berariaz sortuz gero.

11. Kontratuaren justifikazioa eta ordainketa

Kontratuko konpromisoa 3 ordainketaren bidez ordainduko da.

Lehen ordainketa, 3.000 eurokoa, Etxepare Euskal Institutuarekin kontratua sinatzerakoan.

Kontratu hori sinatu eta sei hilabeteko epean ez bada atzerriko argitaletxearekin kontraturik sinatu, sinatzaileak egoeraren berri emango duen txostena bidaliko dio Etxepare Euskal Institutuari.

Kontratua sinatu eta urtebeteko epean ez bada atzerriko argitaletxearekin kontraturik sinatu, sinatzaileak amaierako txosten bat bidaliko dio Etxepare Euskal Institutuari. Bertan jasoko dira egindako kudeaketa lanak eta eragindako gastua justifikatzen duten agirien kopiak (ordainsari, bidaia, itzulpen eta antzeko gastuen kopiak), eta kontratua amaitutzat joko da.



Bigarren ordainketa, 3.000 eurokoa, atzerriko argitaletxearekin liburua itzuli eta argitaratzeko kontratua sinatzerakoan. Sinatzaileak ordura arteko kudeaketa lanak biltzen dituen txostena eta sinatutako kontratuaren kopia bidaliko dizkio Etxepare Euskal Institutuari.

Hirugarren ordainketa, 3.000 eurokoa, liburua argitaratu, gastua justifikatu eta hilabeteko epean. Justifikazio hori egiteko, agiri hauek aurkeztuko dira:

- Argitaratutako liburuaren 3 ale paperean.
- Liburua itzuli eta argitaratzeak eragindako gastuen fakturen kopiak edo frogagiriak.

Kontratua sinatzerakoan adostu ahal izango da bi aldeen artean bigarren eta hirugarren ordainketa zuzenean egin ahal izatea atzerriko argitaletxeari.

Sinatzailea ez bada iristen aurreko atalean jasotako zenbatekoak justifikatzera, ordainketen likidazioa egingo da.

12. Ez-betetzeak

Ez-betetzetzat joko dira deialdi honetan edo bestelako xedapen orokorretan ezarritako betebeharrak ez betetzea eta kontratu bidez jasotako zenbateko guztia edo zati bat deialdi honetan aurreikusitakoa ez den besteren batean erabiltzea.

Halakorik gertatu dela egiaztatzen bada, ez betetzea gertatu dela ulertuko da eta, kontratuaren sinatzaileak itzuli egin beharko dizkio EEIri jasotako zenbatekoak.

13. Datuen babesa

Deialdi honen garapenean jaso eta tratatuko diren datu pertsonalak nahitaez egin beharko dira 2016/679 Araudian (EB) jasotakoaren arabera. Araudi horrek pertsona fisikoak babesten ditu datu pertsonalen tratamenduari eta horien zirkulazio askeari dagokionean.

14. Zalantzak eta gorabeherak

Etxepare Euskal Institutuko zuzendaria izango da organo eskuduna deialdi honen inguruan sor daitezkeen zalantzak eta gorabeherak kudeatu eta argitzeko. Ondoren, hautatu bakoitzarekin sinatutako kontratuan zehaztu eta jasoko dira.